

## 12. Atx-aitz-ax–axe... erro euskoeuroparra ala indoeuroparra??

*Euskeraren Jatorria Elkarlean*

**Instrumentos de aitz o roca, ¿son términos que nos vienen del Paleolítico?**

*Xabier Renteria Uriarte*

Gai honi buruz, 7. biltzarrean Joxemiel Barandiaran gogoratu, lan bat aurkeztu zuen Euskeraren Jatorria Elkarlean.

Ondoren, Xabier Renteria Uriartek, Ekonomia eta Enpresa Zientzian doktorea EHU-n, beste lan osatuago bat egin du, ikuspegi biak, indoeuropeista eta paleoeuskerikoa goitik behera aztertuta, Ama-Atan 2014an argitaratuta.

Hemen lan biak laburtuta daude. Osorik, Euskeraren Jatorriaren webgunean edo Ama-Atan irakurri daitezke.

### 12.1. Joxemiel Barandiaranen AITZ erroari buruzko proposamena

*Euskeraren Jatorria Elkarlean*

**Ondorioak:** Ondoren aipatuko diren 10 arrazoiak kontuan hartuz, logikoa da pentsatzea “aitz” erroa duten hitz horiek paleolito garaikoak direla eta euskerak bere horretan eutsi diela. Eta Barandiaranek seguruenik asmatu zuela. Beraz gaur egun dagoen hipotesi sendoena dirudiela. Bestetik latinezko “asciola” hitz konposatua dela dirudi, lehengo osagaia beste hizkuntzetan agertutako “ax” izan daitekeelarik.

Eta hori horrela balitz, ondo legoke euskera batuan familia bereko hitz guztiak berdin idaztea. Izan ere gehienak “h” gabe idaztea (toponimo gehienak –Aizkorri, Atxarte...- edo aizkora, aiztoa, azkona, aizturra) eta “haitza”, ordea, “h”-rekin idazteak ez du zentzu handirik.

#### a) Antzekotasunaren printzipioa

Justizian lege berdina modu desberdinez aplikatzen dira askotan, tartean erruduntzat hartutakoak euskal herritarrek badira. Hizkuntzalaritzan, zoritxarrez, justizian bezala, sarri askotan legeak ez dira berdina aplikatzen. Adibide nabarmenena latina dugu. Hizkuntza hau 400 urtez eremu zabal batean hizkuntza ofiziala izan zenez, berari onartzen zaizkion mila gauza ez zaizkio euskerari onartzen, nahiz eta gure hizkuntza, latina baino askoz lehenagotik eremu oso zabalean egon ei zen, oraingo genetika azterketek iradokitzen dutenaren arabera. Euskerazko hitz batek latinaren antza osoa duenean, zalantzarik gabe, hitz hori latinetik datorrela esaten dute hizkuntzalariek. Antzekotasunaren printzipioa aplikatzen dute inolako zalantzarik gabe. Horren kontra, beste frogarik eduki gabe, ezin da ezer esan. Baina, hitz batek ez badu latinarekin inolako antzarik eta bai ordea euskerarekin, eta, gainera, euskeratik bertatik azaldu ahal baldin bada, nola demontre esan dezakete latinetik datorrela hitz hori?? Edo nola ukatu dakioke euskerari latinari ematen zaiona?



### **b) Aitz errodun hitzak ezin etorri latinetik**

aitzurra: ligo, bidentis

aizkora: ax, securis, asciola

aiztoa: ferro, culter, novacula

azkona: auge

azpila: bin, fossa, lacus

zulakaitza: dola tibi

Hau da, nola onartu ahal zaio Euskaltzaindiko idazkari jaunari *aizto* hitza latinetik datorrela esatea? Edo *azpila*? Edo *azkona*? Edo *aitzurra*? Edo *zulakaitza*?

### **c) Aitz errodun hitzen etimologiaren gardentasuna**

Kintanari erantzun ziotenez “hemen kontu garrantzitsua ikusten da, latinez ez dago jarraikortasunik mozteko diren tresnen artean, hau da, ematen du hitz bakoitzak ez duela zerikusirik besteekin, bakoitzak jatorri desberdina duela. Euskeraz ordea, etimologiaren arabera, “aitzez” egindakoak direla eta, hitz guztiak, leku beretik sortutakoak direla dirudi.

Normalean maileguak hartzen direnean, askotan, aurreko hitzetako batzuk ere gelditzen dira hizkuntzan. Esaterako, bizkaieraz *bentanie* erabiltzen hasi zenean, *leihoak* ganbaretako zulotxoak izendatzeko gorde ziren. Edo *kazola* erabiltzen hasi zenean *lapiko* hitza ere beste zentzu batekin geratu zen.

Edo aitzinean *maila* (*peldaño*) eta *mailadia* erabiltzen zirenean, *eskailera* hitzak *mailadi* ordezkatu bazuen ere, *maila* hitza geratu zitzaigun. Hau da, ez dira multzo osoak hartzen eta norberaren hizkuntzak denak desagertu. Gure kasuan, nahiz eta latinetik baten bat hartua izan (ax = hacha? = aizkora?) ez dirudi beste guztiek inolako loturarik dutenik”.

Beraz, *aitz* erroa duten hitz guztietatik *aizkora* eta *asciola* dira antza duten bakarrak. Horregatik, beste guztiak, argi eta garbi, latinetik ez datozela esan behar da eta euskeraren bidez haien etimologiak ezin argiagoak direla:

aiztoa: *aitz txikia* (*aitz burua* ere izan liteke, Naberan)

azkona: atx ona?

azpila: aitz biribila

aitzurra/atxurra: lurra (lantzeko) haitza/atxa; lurra urratzeko haitza/atxa (Naberan)

aizturra: aitz-tur (Naberan: dorredun aiztoa?)

zulakaitza: zulatzeko aitz

Beraz, Barandiaranen proposamen honek oinarri ona duela behintzat esan dezakegu.



### **d) Beste hizkuntzekiko antzekotasunak**

Zalantzasak hitzak, esan bezala, *asciola* eta *aizkora bikotea* da eta biak hitz konposatuak direla dirudi, luzeragatik eta lehenengo osagaia beste hizkuntza askotan agertzen den ATX-AX delako:

### Aizkora beste hizkuntzetan

- Portugesez: mACHado
- Gazteleraz: hACHa, mACHete
- Ingelesez: AX, AXe
- Italiano: AScia
- Alemanez: AXt
- Sajoniera zaharra: ACHus eta AKus
- Frantsesera zaharra: AXa

### Opatxurra beste hizkuntzetan

- Ingelesez: ADZ, ADZe
- Gazteleraz: AZuela

### Aitzurra gazteleraz

- AZada

Hitz guzti hauek ikusita, jarraikortasun argi bat dagoela esan daiteke: ATX, ACH, AX, ADZ, AZ eta horiek diruditelat *aizkora* / *asciola* hitzen lehenengo erroa.

## e) Etimologia ezin argiagoak

---

Orain euskeraren eta gazteleraren balizko etimologiak azter ditzagun, ikusteko, ea beste hitzen antzera (*azkona*, *aitzurra*, *azpila*, *zulakaitza* eta *aizturra*), euskeratik bertatik ere azaldu daitezkeen.



(Irudia: Wikipedia)

**Atx (Ax, Axt, Axa, Hacha...):** euskaldunok, besterik gabe, argi ikusten dugu tresna hau *atx* (*aitz*) zati bat izan daitekeela, alegia, lehenengo aizkoren osagaia: *atx* zati bakar bat, hobeto moztu ahal izateko inguruetan zorrotzuta zegoena.

Arkeologoek ondotxo frogatu duten moduan, aizkoraren garapenean bi tresna bereizten dira: lehenengoa “aitz” zati huts bat zen (orain 2.000.000 urte asmatu zela) eta askoaz geroago (azken 200.000 urte) “aitzari” lotura jarri zioten egur baten bidez.

Kasu honetan, hizkuntza guztietan agertzen den erroa, ATX, bere aldagai guztiekin (ach, ax, adz, az...), gizakiak sortutako lehenengo aizkora izango litzateke, etimologia ezin argiago batekin.



(Irudia: Uxio Noceda)

**Aizkora:** hemen etimologia ere nahiko argi dagoela dirudi:


- aitz-ora: oratzeko lekua duen aiztoa (Naberan)
- aitz-kora: lotutako aitza (korapilo: “kora” + “pilo” hitzean bezala)

Etimologia logikoa bezain sinplea dirudi. Hau da, etimologia sinpleenetakoa duen euskal hitz baten aurrean gaudela esan genezake.

Bigarren fase honetan “atxa” lotu egin zuten tresna erabilgarriago bihurtuz. Beraz, “k-ora” guztiz logikoa da eta ondotxo erakusten du aldaketaren muina.

## f) Genetika

Artikulu hasieran aipatu ditugun genetisten lanek (Oppenheimer, Mtez. Pancorbo, Cardoso, Arnaiz...) teoria hau zuzena izateko behar zen osagai garrantzitsua ekarri dute:



(Irudia: *The Origins of the british*)

KEAL (Kantabria - Euskal Herria eta Akitania Lurraldeak) aterpetik mendebaldeko Europa osoa populatu zela, paleolito garaian, tresna garrantzitsu honen urrezko aroan.

Beraz, genetikak, nahi gabe, Barandiaranen euskal popularen jarraikortasunari buruzko teoria baieztatzeaz gain, Joxemielen bigarren proposamen garrantzitsu hau ere egiazkoa izan dadin aukera guztiak zabaldu dizkigu eta aurreko puntuetan esandakoa egia izan dadin beste elementu bat da.

## g) Euskeraren egonkortasuna

Euskal Filologiako zein beste filologietako irakasle askok hizkuntzak etengabe eta erritmo berean aldatzen ari direla ziurtasun osoz esaten dute, zalantzetarako inolako aukerarik eman gabe.

Baina Donemiliagako Rejan dauden orain 1.000 urteko Arabako herrien izenak ikusi eta oraingoak ikusi eta aldaketak egon direla esan behar bada ere, asko ez dira izan, izen ia guztiak ezagutzen direlako:

Hazpurua, Haztegieta, Haizcoeta, Haizpilleta, Harrieta, Harriolha, Harrizavallaga, Carrelucea (oraingo Arluzea), Hurizahar, Sarricohuri, Huribarri, Haberasturi, Huriarte, Horivarri, Hurigurena, Bardahuri, Bassahuri, Hobecori, Atahuri, Okerhuri, Hurivari, Zuhazu, Hegiraz, Hegilior, Heguiraz (oraingo Egilaz), Arzanhegi, Gardellihi (oraingo Gardelegi), Igahigi (oraingo Igai), Mendiolha, Harriolha, Zuhazulha, Olhavarri, Olhaerrea, Barolha (oraingo Baroja), Hurrivari.

Kontrara, antzeko epe batean, 1.200 urteko epean, hau da, 400. urtean hitz egingo zen latinaren eta 1.200 urte geroago gaztelerazko liburuan dagoen hizkuntzaren artean antzeko aldea ote dago?



400. urtea, latina hizkuntza nagusia zenean: "In uno lugare manchego, pro cuius nómine non volo calentare cascos, vivebat facit paucum tempus, quidam fidalgus de his qui habent lanzam in astillerum, adargam antiquam, rocinum flacum et perrum galgum, qui currebat sicut ánima quae llevatur a diábolo"

1605. urtea, gaztelerazko On Kixote: "En un lugar de la Mancha, de cuyo nombre no quiero acordarme, no ha mucho tiempo que viuíá vn hidalgo de los de lança en astillero, adarga antigua, rozin flaco y galgo corredor..."

Biltzar honetan geroago hitz egingo duen Luis Silgok adierazi duenez, Arabako Iruñako ostrakak egiazkoak direla frogatuko denean, euskeraren egonkortasuna frogatzeko aukera paregabea izango dugu, bi mila urteko epean hitzen bi herenetan jarraikortasun handia ikusten delako, beste hizkuntzetan egon ez den adinakoa.

Euskeraren egonkortasuna, beraz, beste argudio bat izan daiteke Barandiaranen teoriaren alde.

## h) Toponimia

---

Baina argudio gehiago dago oraindik Barandiaranen teoria zuzen doala pentsatzeko: toponimia. Izan ere, ekialdeko “aitz” eta mendebaldeko “atx” erroez osatutako ehunka toponimo dugu Euskal Herrian, horietako asko mendi izenak: Atxarte, Aizkorri, Lemoatx, Udalatx/Udalaitz, Untzillatx, Akaitz, Allaitz... Baita leku zehatzagoak ere: Atxuri...

Toponimia zaharretan zaharrena dugu hizkuntzan eta izen horiek erromatarrek jarritakoak izatea zaila egiten zaigu, haiek gutxi zapaldutako eremuetan daudelako gainera.

## i) Aizkorak, aiztoak... “aitzez” ere egiten dira

---

Lakarrak hizkuntzalaritzaz asko omen daki baina, ikus dezagun arkeologiaz dituen ezagutzak. Bere ustean “aitz” erroa duten tresna horiek ezin dira paleolito garaikoak izan harriz egiten zirelako eta ez “aitzez”. Guk, Lakarraren antzera, arkeologiaz oso gutxi dakigunez, Wikipedian aritu gara irakurtzen, ea hori egia den ala ez ikusteko.

Lehenengo bilaketan gauzak argitu zaizkigu. **Aiztoa** bilatuta hauxe topatu dugu:

**Aiztoa edo ganibeta** mozteko erabiltzen den ertz edo xafla da, eskuz edo beste modu batez eusten dena eta heldulekua duena edo ez. Aiztoak gutxienez Harri Arotik (duela bi milioi eta erdi urtetik gutxi gora-behera) erabiltzen dira. Hasieran harriz, silexez (*kriptokristalinoa den kuartzoak (SiO<sub>4</sub>) osatutako arroka sedimentarioa*) edo obsidianaz egiten ziren; ondoren, teknologiak aurrera egin ahala, beste material batzuk erabili izan dira, hala nola brontzea, kobrea, burdina, altzairua, zeramika edo titanioa.

Beraz, aiztoak **arroka** mota bat den sukarriz egiten ziren. Ikus dezagun orain **aizkora** mota bati buruz (bifaz), gaztelerazko Wikipedian zer dagoen:



*Irudia: Wikipedia. “aitzez” egindako bi aurpegietaiko aizkoren irudiak*

“Los bifaces (bi aldeko aizkorak), los cantos tallados y los picos triédricos serían utensilios nucleares, pues es común fabricarlos sobre guijarros, bloques o **nódulos de roca**.”

**Las rocas de grano fino** como el pedernal, la cuarcita y la obsidiana son óptimas para fabricar herramientas, pues se quiebran en lascas sin mucha dificultad.

Por otra parte, no es un instrumento muy exigente respecto al tipo de soporte, **ni de roca**, siempre que la fractura sea concoidea.

Es muy exigente con la materia prima, **requiriendo rocas** de mejor calidad.

Por último, el bifaz constituye una forma prototípica que, refinándose, da lugar a tipos más evolucionados, especializados y sofisticados, como puntas de proyectil cuchillos, azadas, hachas etc.”

Beraz, arkeologiari buruz tutik jakin gabe, ikus dezakegunez, aitz mota batzuk erabili izan ziren aitz erroa duten hitzak egiteko (azkona, aiztoak, aitzurrak, aizkorak edo hachas...).

Zoritzarrez, Wikipedian hauxe irakurtzen dugu “Aizkoraren” fitxan:

Duela gutxi arte, aizkora hitza haitz erroatik zetorrela uste izan da. Horrek antzina harriarekin egiten zela erakutsiko liguke, gerora, Brontze Aroan, metalezko edota kobrezko ezordezkatuak izan ziren arren. Erroa ustez beste zenbait tresna batzuetan bezalakoa izango zen: aiztoa , aitzurra...

Egun beste teoria batek hartu du indar gehiago. Hain zuzen, latineko ascioli hitzetik eratorria litzateke "aizkora" hitza.

## j) “Harri” eta “atx/aitz” hitzen arteko lotura semantikoa

---

Aurreko puntuan esandakoa gutxi balitz, Lakarrari aipatu behar zaio “atx/aitz” eta “harriaren” arteko nahasketa semantikoa leku batean baino gehiagotan dagoela eta, horrek zer pentsatu eman beharko ligukeela. Ikusi ditzagun:

- **Arkaitza:** hitz honen osagaiak harri eta aitzia izan litezke
- **Aiako Harriak:** mendi bat da eta “aitza” erroaren ordean “harriak” du osagai gisa, eta, denok dakigunez, aitzak ditu eta ez harriak. Mendi hau garrantzitsua da Gipuzkoan eta *harri* hitza *aitza* izendatzeko erabili izana, antzina bi hitz hauen arteko harreman semantiko estua zela edo bien arteko nahasketa egon izan dela adierazi lezake.
- **“Harri” osagaia duten mendi izenak:** *Aiako Harriak* izenean bezala, hitz hau eduki dezaketen mendi izen gehiago ere badago: **Arriolatx**, **Pardarri**, **Arraitz**... Beraz, mendi izen batzutan “harri” izena gaur egungo “aitza” izendatzeko dagoela esan genezake.
- **Sukarria:** “harri” osagaia badu ere, izatez, “aitza” da (silex). Gainera, euskerak paleolito garaira eramaten gaituen beste hitz bat gehiago dugu hau, izan ere, sukarri edo silexa sua egiteko erabiltzen zuten gure arbasoek, pospoloak asmatu gabe zeuden garaian noski.



Aiako Harriak (Irudia: Geografiamungia's weblog)